

<p style="text-align: center;">IKASGAIAREN izena</p> <p style="text-align: center;">1.1. Ikus-entzunezko komunikatzailea: definizioa, funtzioak eta testuinguratzea</p>	<p style="text-align: center;">Kreditoak</p> <p style="text-align: center;">2 ECTS.</p>
<p>Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan Lehen MAILA eta lehen SEIHILEKOA</p>	
<p>Ikasleak ikasgai honekin eskuratzen dituen gaitasunak eta emaitzak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gaitasun orokorrak: <ul style="list-style-type: none"> o Entzuten jakin eta norberaren errepresentazioetan aldaketak onartzeko prest egon o Taldean lan egin o Liderra izan o Erabakiak hartzea o Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua landu o Lanaren ikuspegi orokorra izan o Komunikazio eraginkorra sustatu o Ikasten ikasi - Gaitasun espezifikoak <ul style="list-style-type: none"> -Ezagupenak: <ul style="list-style-type: none"> o Komunikatzaileak ezagutzaren gizartean duen garrantzia ulertu. o Pertsona, kolektibo eta egoera bakoitzaren konplexutasuna eta aniztasuna ulertu. o Ikus-entzunezko komunikatzailearen profila lortzeko behar diren gaitasun orokorren garapenaren azpian dauden oinarri teorikoak ezagutu. o Komunikazioak gizarte demokratiko baten garapenean duen garrantzia ulertu. o Funtzio komunikatiboa informazioa pilatzean eta berezi gabe transmititzean ez baizik eta informazioa testuinguratzen, iragazten eta printzipio etiko eta deontologikoen arabera transmititzen jakitean datzala ulertu. -Trebetasunak: <ul style="list-style-type: none"> o Norberaren praktikaz hausnartu eta norberaren lana hobetzeko eta berrikuntzak onartzeko prest egon. o Ikus-entzunezko komunikatzailearen zereginean bere burua prestatzen lagunduko dioten gaitasunak identifikatu. o Bizikidetzeta sustatzeko trebetasunak garatu. o Praktika pertsonala aztertzeko gai izan eta gaitasun orokorrak hobetzeko helburuak ezarri, hala nola: taldean lan egin, talde baten liderra izan, erabakia hartu, arazo eta gatazkei konponbidea eman, eraginkortasunez komunikatu, erabateko ikuspegia izan. o Gaitasun orokorrak ikus-entzunezko komunikatzailearen profil profesionalaren garapenarekin lotu. o Bere entzuleriarentzat hizkuntza erreferentea izango dela jakitun izan. 	
<p>Ikasgaiaren ekarpena profil profesionalari Komunikatzailearen profilari, gaitasun orokorrei eta funtzioei buruzko hasierako hausnarketa.</p>	
<p>Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta beronek ikasleak eskuratu beharreko gaitasunekin duen harremana. Lanak egingo dira arazo edo kasuetan oinarritutako mintegietan, ikasleak graduan zehar erabiliko den metodologiarekin ohitzeko helburuarekin. Ikasleen beraien ibilbide biografikoaz eta komunikatzaile adituen lekukotasunez hausnartuko da.</p>	
<p>Hezkuntza-jarduerak. Jarduera presentzialak (%40):</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Mintegiak: 5 ordu ✓ Ahozko azalpenak: 4 ordu ✓ Eskola magistralak eta teorikoak: 2 ordu ✓ Banakako zein taldekako lana: 4 ordu ✓ Narrazio autobiografikorako tailerra: 5 ordu 	

Jarduera ez presentzialak (%60):

- ✓ Banakako ikasketa eta lan autonomoa: 8 ordu
- ✓ Taldekako ikasketa eta lan autonomoa: 22 ordu

Gaitasunak eskuratzeko ebaluazio-sistema

- ✓ Narrazio autobiografikoak, mintegietan parte hartzea, banakako zein taldekako lanak, ahozko azalpenak eta rol-jokoak (bai edukiak bai hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna kontuan hartuz).

Edukien laburpena

- Ekintzaren hausnarketa, ikus-entzunezko komunikatzailearen betekizunaren ikuspegi kritikoa eta orokorra, komunikazioaren betekizunaren ikuspegi kritikoa eta orokorra, komunikazio funtzioaren testuinguratzea, komunikatzailearen funtzioa betetzeko faktore garrantzitsuak.
- Talde-lana: taldea vs. ekipoa, ekipoaren faseak, rolak.
- Buruzagitza: motak eta estrategiak.
- Erabaki-hartzea eta arazoen konponketa: metodoak eta teknikak.
- Ikuspegi orokorra.
- Gatazken konponketa eta komunikazio eraginkorra: elkarrizketa, negoziazioa, komunikazio eraginkorra.